

## OSASUN SAILA

### Zk-5731

254/1997 DEKRETUA, azaroaren 11koa, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala aldatzen duena.

Uztailaren 11ko 369/1995 Dekretuak Osasun Sailaren eta «Osakidetza/Servicio vasco de salud» izeneko Administrazio Organismo Autonomoaren egitura organikoak eta funtzionalak ezarri zituen.

Dekretu horrek gobernuko osasun-arloetako araudi organikoen ohiko finkapen-prozesuei erantzun zien; horrezaz gain beste puntu garrantzitsu bat izan zuen, EAeko osasunaren berrikuntza-prozesurako inflexio-puntu mugatu baitzuen.

Dekretuak administrazio-egiturak egokitutako presztatu egin zituen «Osasuna Zainduz» plan estrategikoan adierazitako antolaketaren eta jardunbide-hatsapen berrien hartzale eta betearazle bihur zitezen. Gure antolamendu sanitarioaren ingurunea prestatzen lagundu zuen, ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeak azken batez eratu duen esparru juridikoaren aldaketa gauzatzeko.

Lege berriaren babespean ekindako bideari eutsi behar dio euskal osasunak, baliabideen antolaketa eta jardunbide arduratsuagoa bilatzeko. Eraginkortasunaren, eragiletasunaren eta eragingarritasunaren baloreak batu behar ditu, hori baita herritarrek herri-zerbitzu sanitarioetatik espero dutena.

Osasun Sailean indarrean dauden egituren egokitzapen logikoa da dekretu honen xedea. Aipatutako 369/1995 Dekretuaren I. atalburuak ezarri zituen egitura horiek. Dekretu horretako II. atalburua, Osakidetza organismo autonomoari buruzkoa, indargabetu egingo da eta horren ordez Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Lege berriak EAEn zerbitzu sanitarioak eskaintzeko diseinatu duen antolaketa berriaren estatuak arautzen dituen atalburua sartuko da. Antolaketa berria Osakidetza-Servicio vasco de salud ente publikoa izango da.

Osasun Sailari dagokionez ez da aldaketa konplexuegirik edo handiegirik egin, baizik eta antolaketa behar bezala egokitu; eta antolaketa egokitu egin da legeak jaso dituen aurreikuspenen arabera lan egiteko.

Zehatz-mehatz aldatu dira indartuen atera diren ezaugarriak edo legegileak sortu dituenak, hala nola, partaidetza komunitarioko kontseilu berriak atxikitzea Sailari, saileko lurralte-zuzendaritzen artikulazioa eta, batez ere, baliabideen orientazio ausartagoa Euskadiko Osasun Planak garatu behar duen kudeaketa tekniko eta sanitario garrantzitsua laguntzeko.

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### Nº-5731

DECRETO 254/1997, de 11 de noviembre, por el que se modifica la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad.

El Decreto 369/1995, de 11 de julio, estableció las estructuras orgánicas y funcionales del Departamento de Sanidad y del Organismo Autónomo Administrativo Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Dicho Decreto, además de responder al habitual proceso de fijación de reglamentos orgánicos en las distintas áreas gubernamentales, en este caso para Sanidad, constituyó una acción singular en tanto que delimitó un punto de inflexión para el proceso de reforma de la Sanidad vasca.

Adecuó y preparó las estructuras administrativas para que pudieran constituirse en receptoras y ejecutoras de los nuevos principios de organización y funcionamiento señalados en el Plan estratégico «Osasuna Zainduz», facilitando la predisposición de nuestro entorno organizativo sanitario para albergar el cambio de marco jurídico que ha plasmado definitivamente la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi.

Al amparo de esta nueva Ley, la Sanidad vasca debe progresar en la trayectoria emprendida, para buscar una organización y funcionamiento de sus recursos mucho más comprometidos en la conjunción de los valores de eficacia, eficiencia y efectividad, como símbolos explícitos de lo que espera la ciudadanía de sus servicios públicos sanitarios.

Con el presente Decreto simplemente se persigue una adecuación lógica de las estructuras vigentes del Departamento de Sanidad que estableció el Capítulo I del citado Decreto 369/1995, bien entendido que su Capítulo II, dedicado al Organismo Autónomo Osakidetza, quedará derogado y sustituido por la correspondiente regulación de los Estatutos Sociales de la nueva organización que diseña la Ley de Ordenación sanitaria para la provisión de servicios sanitarios en la CAE, esto es, el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Ahora, en lo que afecta al Departamento de Sanidad, no se trata de una modificación compleja o voluminosa, sino de ajustar convenientemente su entramado organizativo, pensado para trabajar en sintonía con las previsiones que finalmente ha albergado la Ley.

Se realizan los cambios precisos en aquellos aspectos que han salido más fortalecidos o que suponen creación exclusiva del legislador, como es el caso de la adscripción al Departamento de nuevos Consejos de participación comunitaria, la articulación de las Direcciones Territoriales del Departamento y, sobre todo, la orientación más decidida de sus recursos para apoyar la importante gestión técnico-sanitaria que debe llevar el objetivo fundamental del Plan de Salud de Euskadi.

Ondorioz, Osasun sailburuak proposatuta, lehendakariak aurretiaz onartuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko azaroaren 11ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**Atal bakarra.-**

Uztailaren 11ko 369/1995 Dekretuak onartutako Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala aldatu egiten da. Hainbat atal berridatzi, ezabatu edo erantsi egiten dira, ondoren adierazten den modura:

**2. atala.- Antolakuntza orokorra.**

369/1995 Dekretuko 2. atala aldatu egiten da eta honela gelditzen dira bertako idazatiak:

«B) Lurralde Organoak:

Osasun Sailaren lurralde-zuzendaritzak, osasun-barruti bakoitzean.

D) Administrazio Instituzionala:

Osakidetza-Servicio vasco de salud ente publico, ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legearen bidez sortutakoa, Osasun Sailera atxikia dago.

Idazati bat eransten zaio 2. atalari:

«E) Partaidetza komunitarioko kontseiluak:

Partaidetza komunitarioko kontseilu gisa sortuko dira Euskadiko Osasun Kontseilua, Autonomia Erkidegoko eremu osorako, eta Lurraldeko Osasun Kontseiluak, osasun-barruti bakoitzaren eremurako. Kontseilu horiek Osasun Sailera atxikiko dira.

Honako araubidea izango dute, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 11. atalarekin bat.

Osaera.-

Osasun sailburuordea izango da kontseilu guztiako buru edo, bestela, haren ordez arituko den Osasun Saileko goi-kargudunen bat. Sailetik egoki iritzi diren ordezkari guztiak joango dira kontseiluetara eta ordezkarien artean aukeratuko da idazkaria.

Hauek osatuko dute Euskadiko Osasun Kontseilua:

– Hiru foru diputatu, edo horien ordezko karguak; bakoitzak lurralte historiko bakoitzeko gobernu-organoa ordezkatuko du.

– Udalbatzetako hamabi kide, Autonomia Erkidegoko udalen ordezkapenean, udalbatzeten ordezkartzarik handien duen elkartea aukeratuta.

– Euskadiko elkargo ofizialako lau kide. Medikuen, OLT/Erizaintzako diplomatuen, botikarien eta albaitarien elkargoek aukeratutako dituzte kide horiek, elkargo bakoitzak bat.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 11 de noviembre de 1997,

DISPONGO:

**Artículo único.-**

Se modifica la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad, aprobada por Decreto 369/1995, de 11 de julio, quedando redactados, suprimiéndose o añadiéndose artículos conforme a continuación se citan:

**Artículo 2.- Organización general.**

Se modifica el artículo 2 del Decreto 369/1995, quedando redactados los apartados del mismo que se citan como sigue:

«B) Órganos periféricos:

Las Direcciones Territoriales del Departamento de Sanidad en cada una de las Áreas de Salud.

D) Administración Institucional:

Se encuentra adscrito al Departamento de Sanidad el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, creado por Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi.»

Se añade un apartado nuevo en el artículo 2:

«E) Consejos de participación comunitaria:

Se crean, como Consejos de participación comunitaria que estarán adscritos al Departamento de Sanidad, el Consejo de Sanidad de Euskadi, para el ámbito de toda la Comunidad Autónoma, y los Consejos Territoriales de Sanidad, para el ámbito de cada Área de Salud.

Su régimen, de conformidad con el artículo 11 de la Ley de Ordenación sanitaria, será el siguiente:

**Composición.-**

Todos los Consejos estarán presididos por el Viceconsejero de Sanidad, o Alto Cargo del Departamento de Sanidad en quien delegue, pudiendo asistir a los mismos cuantos representantes del Departamento se consideren necesarios, de entre los cuales se designará al Secretario.

Integran el Consejo de Sanidad de Euskadi:

– Tres Diputados Forales, o cargo en quien deleguen, en representación cada uno de ellos del órgano de gobierno de cada Territorio Histórico.

– Doce Corporativos Municipales, en representación de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma y designados por la Asociación de mayor representatividad en la misma.

– Cuatro representantes de los Colegios Oficiales de Euskadi, elegidos cada uno de ellos por los Colegios de Médicos, ATS/Diplomados en Enfermería, Farmacéuticos y Veterinarios.

– Autonomia Erkidegoan jarduten duten kontsumitzaileen erakundeek edo federazioek izendatutako bi ordezkari.

– Gaixotasunak edo patologiak dituzten pertsonen elkartetako bi ordezkari, Autonomia Erkidegoan esanguratsuak diren elkartetakoak.

– Autonomia Erkidegoan ordezkaritz handieña duten sindikatuetako lau ordezkari.

– Osasun arloan jarduten duten eta ordezkaritz handia duten gainerako sindikatuetako bi ordezkari.

– Autonomia Erkidegoan ordezkaritz handieña duten empresa-antolakundeetako sei ordezkari.

Osasun-barruti bakoitzeko lurrarde-kontseiluek osaera berbera izango dute, lurraldearen ordezkapen-irizpidera egokitzen; eta kontuan izan behar da foru aldundi bakoitzak hiru ordezkari izango dituela eta lurralde historiko bakoitzeko udalek, berriz, hamabi. Hala ere, aipatutako erakundeek aukera izango dute ordezkariak aldatzeko.

#### Ahalmenak.-

Euskadiko Osasun Kontseiluaren ahalmenak kontsultakoak eta aholkuak ematekoak dira, Euskadiko Osasun Plana garatzeari dagokionez eta beste hauen xedenetan ebaluazioari eta xehetasunei dagokienez: osasun plana, atentzio prebentiboa, osasuna sustatzea, aseguru-kudeaketa eta osasun-zerbitzuen kontratazioa.

Osasun-barruti bakoitzeko lurrarde-kontseiluek ere ahalmen berberak izango dituzte, lurrarde-zuzendaritza bakoitzak egin beharreko txostenak ezagutzeari dagokionez. Osasun-barruti bakoitzeko zerbitzu sanitarioei dagozkien berezitasunen azterketa eduki behar dute txostenak.»

#### 4. atala.– Osasun Sailordetzari buruzkoa.

369/1995 Dekretuko 4. atala aldatu egiten da eta honela gelditzen dira bertako idazatiak:

«2.– Osasun Sailordetzaren menpeko erakundeak.

Osasun Sailordetzaren menpe daude: Osasun Publikorako Zuzendaritza, Osasun Antolamendu eta Ebaluaziorakoa, eta Osasun Aseguramendu eta Kontrataziorakoa.

Halaber, Saileko Lurralte Zuzendaritzak Osasun Sailordetzaren menpekotasun hierarkikoan daude. Horrek ez du kaltetuko Osasun Saileko zuzendaritza bakoitzari arloaren arabera dagozion koordinazio funtzionala.

– Dos representantes designados por las Organizaciones o Federaciones de Consumidores o Usuarios con ámbito de actuación en la Comunidad Autónoma.

– Dos representantes de las Asociaciones de personas afectadas por enfermedades o patologías diversas, representativas en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

– Cuatro representantes de los Sindicatos más representativos de la Comunidad Autónoma.

– Dos representantes de otros Sindicatos implantados en el sector sanitario por su representatividad en el mismo.

– Seis representantes de las Organizaciones Empresariales más representativas de la Comunidad Autónoma.

Los Consejos Territoriales de cada Área de Salud tendrán la misma composición, sin perjuicio de que las instituciones citadas puedan variar la identidad de sus representantes, para adecuarse al criterio de representatividad territorial, y teniendo en cuenta que la Diputación Foral correspondiente contará con tres representantes y los Ayuntamientos del Territorio Histórico respectivo con doce representantes.

#### Facultades.-

Al Consejo de Sanidad de Euskadi le corresponderán facultades consultivas y de asesoramiento en relación con la formulación del Plan de Salud de Euskadi y los informes correspondientes sobre evaluación de objetivos y determinaciones del Plan de Salud, Atención Preventiva y Promoción de la Salud, y Gestión de Aseguramiento y Contratación de servicios sanitarios.

A los Consejos Territoriales de cada Área de Salud les corresponderán las mismas facultades en relación con el conocimiento de los informes que corresponderá emitir a cada Dirección Territorial, entendiendo que los mismos deberán comprender el análisis de las especificidades que atañen a los servicios sanitarios de cada Área de Salud.»

#### Artículo 4.– De la Viceconsejería de Sanidad.

Se modifica el artículo 4 del Decreto 369/1995, quedando redactados los apartados del mismo que se citan como sigue:

«2.– Organización dependiente de la Viceconsejería de Sanidad.

Dependen de la Viceconsejería de Sanidad las Direcciones de Salud Pública, de Ordenación y Evaluación Sanitaria, y de Aseguramiento y Contratación Sanitaria.

Asimismo dependen jerárquicamente de la Viceconsejería de Sanidad las Direcciones Territoriales del Departamento de Sanidad, sin perjuicio de la coordinación funcional que corresponderá, en función de la materia, a cada una de las Direcciones del Departamento de Sanidad.

**3.- Euskadiko Osasun Plana.**

Osasun sailburuordeari zuzenean dagokio dekretu honetan organikoki gomendatzen diren jarduketak zuzentzea eta koordinatzea, Euskadi-ko Osasun Planak osotu behar dituzten osasun-helburuen mugapenari buruzko proposamenei dagokienez, baita ere helburu horiek betearazteko estrategiei eta betetze-mailen ebaluazioari dagokionez.

Osasun Plana koordinatzeko Zuzendaritz Batzordea eratuko da, Osasun sailburuordea izango da batzorde horretako buru, eta bertan parte hartuko dute Saileko Osasun Publikorako zuzendariak, Osasun Antolamendu eta Ebaluaziorako zuzendariak, Zerbitzu zuzendariak eta Ekonomi Araubideko zuzendariak. Organo horietariko bakoitzak garatuko ditu bere ardurapeko zereginak, oraingo dekretuak adierazten duen modura.

Sailordetzak unitate bat edukiko du zuzenean atxikita Osasun Plana lantzeko eta planari dagozkion ebaluazioak egiteko beharrezkoak diren zereginen kudeaketarako eta koordinazio teknikorako. Unitate horren izena Osasun Planerako Idazkaritza Teknikoa izango da.

Idazkaritza Tekniko horretako langileek Sailordetzaren menpeko zuzendaritzek behar duten laguntza teknikoa emango dute, Osasun Plana eratzeko esleituta dituzten egitekoei dagokienez».

**5. atala.- Zerbitzu Zuzendaritzari buruzkoa.**

Aldatu egiten da 369/1995 Dekretuaren 5. atala eta ondoren adierazten den modura gelditzen da. Adminis-trazio-organoaren izena aldatu egin da eta beste idazati bat eransten zaio:

«**5. atala.- Zerbitzu eta Ekonomi Araubidea-ren Zuzendaritzari buruzkoa**

Zerbitzu eta Ekonomi Araubidearen Zuzenda-ritzari esleitutako zereginen zuzendaritzta teknikorako eta administratiborako, horren menpe egongo da zuzenean honako zuzendariordetza hau:

Koordinazio Ekonomikoa.»

**9. atala.- Osasun Aseguramendu eta Kontrataziorako Zuzendaritzari buruzkoa**

369/1995 Dekretuko 9. atala aldatu egiten da eta honela gelditzen da:

«**1. Osasun Aseguramendu eta Kontrataziorako zuzendariari dagokio, zuzenean eta hierarkikoki Osasun sailburuordearen menpe, ondoko eskurantzak erabiltzea:**

a) Osasun Sailak programatutako gestio adminis-tratibo-teknikoa zuzentzea eta bultzatzea, zenbait esparrutan. Esparruok dira:

**3.- Plan de Salud de Euskadi.**

Corresponde directamente al Viceconsejero de Sanidad dirigir y coordinar las actuaciones que se encomiendan orgánicamente en este Decreto, res-pecto a las propuestas de delimitación de los objetivos de salud que deben integrar el Plan de Salud de Euskadi, así como respecto a las estrate-gias de ejecución de dichos objetivos y la evalua-ción de los niveles de cumplimiento.

Para la coordinación del Plan de Salud, se constituirá un Comité Directivo, presidido por el Viceconsejero de Sanidad, y en el que tomarán parte los Directores de Salud Pública, Ordena-ción y Evaluación Sanitaria, Aseguramiento y Contratación Sanitaria, y de Servicios y Régimen Económico del Departamento. Cada uno de estos órganos desarrollará las tareas de su responsabili-dad en los términos que señala el presente Decre-to.

Para la gestión y coordinación técnica de las tareas que requiera la elaboración y las correspon-dientes evaluaciones del Plan de Salud, la Vice-consejería tendrá adscrita directamente una uni-dad, denominada Secretaría Técnica para el Plan de Salud.

El personal de dicha Secretaría Técnica presta-rá el apoyo técnico que requieran las Direcciones dependientes de la Viceconsejería en relación con las tareas que tienen las mismas asignadas para la configura-ción del Plan de Salud.»

**Artículo 5.- De la Dirección de Servicios.**

Se modifica el artículo 5 del Decreto 369/1995, adoptando el mismo la rúbrica que a continuación se indica, con el consiguiente cambio de denominación del órgano administrativo, así como añadiéndose a su redacción el apartado nuevo siguiente:

«**Artículo 5.- De la Dirección de Servicios y Régimen Económico.**

Para la dirección técnica y de carácter admi-nistrativo de las tareas encomendadas a la Direc-ción de Servicios y Régimen Económico, depen-derá directamente de la misma la siguiente Sub-dirección:

Coordinación económica.»

**Artículo 9.- De la Dirección de Aseguramiento y Contratación Sanitaria.**

Se modifica el artículo 9 del Decreto 369/1995, que-dando redactado el mismo como sigue:

«**1.- Corresponde al Director de Asegura-miento y Contratación Sanitaria, bajo la depen-dencia directa y jerárquica del Viceconsejero de Sanidad, el ejercicio de las siguientes atribucio-nes:**

a) Dirigir e impulsar la gestión administrativa y técnica que programe el Departamento de Sani-dad en los siguientes ámbitos:

– Ondokook ordenatzea: prestazio publiko sanitarioen estaldura-esparru materiala eta prestazio horietarako herritarren sarbidea.

– Autonomia Erkidegoko aseguruaren erregistro nagusia, Osasun Txartel Indibidualak (OTI) behar dituen arau teknikoen proposamena, eta indarrean dagoen aseguru-erregimen publikoan altak eta bajak ematean egon daitezkeen gorabeherak direla eta, aurkezten diren erreklamazioak eta erreklamazioak proposatzea.

– Osasun zerbitzuen erabiltzaile-herritarren eskubideen erabilera eta obligazioen betepenaren tutoretza orokorra.

– Zerbitzu sanitarioen kontratacio publiko estrategiak, ebaluazioa eta kontrola: zerbitzu sanitario publikoen ekonomi garapena, oinarrizko ekonomi baldintzak proposatzea kontzertazio-rako, erabiltzaileek zerbitzuaz egiten duten erabilera ebaluatzea eta eskaintako estaldura eta kalitatea kontrolatzea; baita jendea zenbateraino dagoen gustura ikustea ere.

– Ordenazio farmaceutikoa, horren esparruko kontzertazioaren garapena eta medikamendu eta produktu sanitarioen erabilera arrazionalaren sustapen orokorra.

b) Euskadiko Osasun Planean ezarritako osasun-helburuen beterazpen-estrategia lantzeko lehen erantzukizuna erabiltzea, osasun-asistenziaari dagokionez; baita ere, aipatutako Osasun Plana ukitzen duten gainerako zereginetan lankidetzan aritzea.

c) Asistentzia sanitarioagatiko gastu-itzulketen espediente guztien interpretazio homogeneoa egin ahal izateko irizpide orokorrak ezartzea. Gai hori dela eta aurkezten diren erreklamazio guztiak, auzibidera jo aurretikakoak, ebaeztea eta, bereziki, hiru milioitik gorako zenbateko gainditzen duten eskabideei buruzko hasierako ebaezpenak hartzea.

Prestazio ortoprotesikoari dagozkion katalogoa eta prezioak proposatu beharko ditu, halaber, eta, hala egokituz gero, auzibidera jo aurretikako erreklamazioak ebatzi, prestazio horri dagokionez.

d) Ordenazio farmaceutikoko gaietan dagozkion baimen administrativo-sanitarioak ebaeztea, eta, esparru horrekin eta medikamendu nahiz produktu sanitarioekin zerikusia duten haustee-tatik eratorritako prozedurei dagokienez, zigor-espedienteen tramitazioa gainbegiratzea, prebentzioko eta kautelazko neurri egokiak hartzea, eta zigortzeko ahalmena erabiltzea, 500.000 PTAra arteko isunak jarri behar direnean, Osasun sailburuordeari ebazen-proposamena aurkeztuko diolarik, kantitate hori gainditzen duten espedienteak direnean.

– Ordenación del ámbito material de cobertura de las prestaciones públicas sanitarias y acceso de la ciudadanía a las mismas.

– Registro central de aseguramiento público sanitario de la Comunidad Autónoma, propuesta de las normas técnicas que requiera la Tarjeta Individual Sanitaria (TIS), así como propuesta de los recursos o reclamaciones que puedan interponerse por incidencias en las altas y bajas en el régimen de aseguramiento público sanitario vigente.

– Tutela general del ejercicio de derechos y del cumplimiento de obligaciones por los ciudadanos usuarios de los servicios sanitarios.

– Estrategias, evaluación y control de la función de contratación pública de servicios sanitarios: evolución económica de los servicios sanitarios públicos, propuesta de condiciones económicas básicas y comunes para la concertación, evaluación de la utilización de los servicios por los usuarios y control de la cobertura proporcionada, así como de los niveles de calidad y satisfacción.

– Ordenación farmacéutica, desarrollo de la concertación en su ámbito y promoción general del uso racional de los medicamentos y productos sanitarios.

b) Ejercer la responsabilidad preferente de elaboración de la estrategia de ejecución de los objetivos de salud fijados en el Plan de Salud de Euskadi en materia de asistencia sanitaria, así como colaborar en el resto de tareas que afecten a dicho Plan de Salud.

c) Establecer los criterios generales que permitan una interpretación homogénea en todos los expedientes de reintegro de gastos por asistencia sanitaria, correspondiéndole la resolución de todas aquellas reclamaciones previas a la vía judicial que se formulen en esta materia y, particularmente, la resolución inicial de las solicitudes cuyo importe supere la cuantía de tres millones de pesetas.

Asimismo le corresponderá proponer el catálogo y precios correspondientes de la prestación ortoprotésica y resolver, en su caso, las reclamaciones previas a la vía judicial respecto a dicha prestación.

d) Resolver las autorizaciones administrativo-sanitarias que correspondan en materia de ordenación farmacéutica, y, respecto a los procedimientos derivados de infracciones relacionadas con dicho ámbito y con los medicamentos y productos sanitarios, supervisar la tramitación de los expedientes sancionadores, adoptar las medidas necesarias de carácter preventivo o cautelar y ejercer la potestad sancionadora en los casos de imposición de sanciones de multa de hasta 500.000 PTA, elevando propuesta de resolución al Viceconsejero de Sanidad en los expedientes que superen dicha cuantía.

e) Zerbitzu sanitarioak eta horiei ezar daki-keen prezio-politika ituntzeko jarraibide estrate-gikoak eta irizpide orokorrak proposatzea. Itun berriak gauzatzeko aldez aurreko proposamenak baimentzea Osasun Sailarekin inolako kontratu-rik ez duten zentro eta erakundeekin. Eta dago-kion tarifen araudian aurreikusi gabeko zerbi-tzuak emateko xedea duten edo osasun-barrut-batean baino gehiagotan jarduteko diren itunak aldatzeko, berrikusteko edo salatzeko ere aldez aurreko baimen hori bera ematea.

f) Irizpide orokor bereziak proposatzea, pro-grama-kontratu-en bitarte, Osakidetza-Servicio vasco de salud ente publikoko zerbitzu sanita-rio-en antolamenduei helburuak eta aurrekontue-tako baliabideak ezartzeko. Eta erosketa-plan orokorrak ezartzea, hala behar duten prestazioe-tarako.

2.- Osasun Aseguramendu eta Kontrataziora-ko Zuzendaritzari gomendatutako zereginen zuzendaritza teknikorako eta administrazio-zuzendaritzarako, zuzenean haren menpe egongo dira honako zuzendariordetzak:

- Aseguramendu eta Kontratazioa
- Farmazia.»

#### **10. atala.- Osasun Saileko lurralte-ordezkarietzei buruzkoa.**

369/1995ko Dekretuko 10. atala oso-osorik ezabatu da eta ondoren datorren testua sartu da haren ordez.

#### **«10. atala.- Osasun Saileko lurralte-zuzen-daritzei buruzkoa**

1.- Osasun Saileko lurralte-organo gisa sortu dira lurralte-zuzendaritzak. Lurralte-zuzenda-ritza bakoitzaren jarduera-eremua Euskal Auto-nomia Erkidegoko osasun-barruti bakoitza izan-go da.

2.- Lurralte-zuzendari bakoitzak zuzendaria-ren maila organikoa izango du, Jaurlaritzaren 7/1981 Legean aurreikusten den eraginetarako.

3.- Lurralte-zuzendari bakoitzaren egitekoia izango da Sailaren egitekoen administrazioa eta lurralte-kudeaketa dagokion osasun-barrutian, Osasun sailburuordearen menpekotasun hierarkikoan beti ere.

Honako eskurantza hauek bete beharko ditu bereziki:

a) Osasun publikoa dela eta, sailak prestatzen dituen programak eta ekintzak gauzatzea. Hori aurrera eramateko osasun-barruti bakoitzean indarrean dagoen lurralte-antolamenduaren egi-tura hartuko da kontuan, eta beharrezkoak diren jarduera materialak garatuko dira laboratorioari, ikuskaritzari eta osasun-kontrolari dagokionez.

e) Proponer las líneas estratégicas y criterios generales para la concertación de servicios sanita-rios y la política de precios aplicable a los mis-mos, así como autorizar con carácter previo las propuestas de formalización de nuevos conciertos con centros e instituciones que no tengan ningún tipo de relación contractual con el Departamento de Sanidad y otorgar esa misma autorización pre-via respecto a la modificación, revisión o denuncia de aquellos conciertos que tengan como objeto la prestación de servicios no previstos en la regula-ción de tarifas correspondiente o que tengan como destinataria a más de un Área de Salud.

f) Proponer los criterios generales diferencia-dos para la asignación de objetivos y recursos presupuestarios a las organizaciones de servicios sanitarios del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud a través de los contratos-programa y establecer planes de compra con carácter gene-ral, respecto a las prestaciones que así lo requie-ran.

2.- Para la dirección técnica y de carácter administrativo de las tareas encomendadas a la Dirección de Aseguramiento y Contratación Sanitaria, dependerán directamente de la misma las siguientes Subdirecciones:

- Aseguramiento y Contratación.
- Farmacia.»

#### **Artículo 10.- De las Delegaciones Territoriales del Departamento de Sanidad.**

Se suprime en su totalidad el texto del artículo 10 del Decreto 369/1995, siendo sustituido por el texto que a continuación sigue:

#### **«Artículo 10.- De las Direcciones Territorio-les del Departamento de Sanidad.**

1.- Se crean las Direcciones Territoriales del Departamento de Sanidad, como órganos perifé-ricos del mismo cuyo ámbito de actuación corres-ponderá a cada una de las Áreas de Salud de la Comunidad Autónoma.

2.- Cada Director Territorial ostentará el nivel orgánico de Director, a efectos de lo previsto en la Ley 7/1981, de Gobierno.

3.- Correspondrá a cada Director Territorial, bajo la dependencia jerárquica del Viceconsejero de Sanidad, la administración y gestión periférica de los asuntos del Departamento en la respectiva Área de Salud.

En particular, le corresponderá el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Ejecutar los programas y actividades de salud pública que se programen en el Departamento, adoptando para la operatividad de los mismos que se requiera la estructura de ordena-ción territorial comarcalizada vigente dentro de cada Área de Salud y desarrollando las activida-des materiales necesarias en cuanto a laboratorio, inspección y control sanitario.

b) Sailaren eskumeneko gaiei dagozkien zigor-espedienteak hastea eta izapidetza, dagokien zuzendariei proposatzea , prebentzioko eta kaute-lazko neurriak hartzera eta zigortzeko ahalmena erabiltzea, 250.000 PTArA arteko isunak jarri behar direnean, Osasun sailburuordeari eba-zpen-proposamena aurkeztuko diolarik, kantitate hori gainditzen duten expedienteak direnean.

c) Herritar guztientzat ziurtatzen diren osa-sun-prestazioen estaldurak eskatzen dituen egin-kizun eraginkorrik gauzatzea, eta horren arabera:

- Altak eta bajak izapidetza eta eba-ztea osa-sun publikoari dagokionez indarrean dagoen ase-guru-erregimenean, eta Euskal Autonomia Erki-degoko aseguruaren erregistro nagusia eratzeko beharrezko den lurralte-kudeaketa egitea.

- Zerbitzu sanitarioaren estalduraz, erabileraz eta erabiltzaileen sarbideaz beharrezkoak diren ikerketak egitea dagokion osasun-barrutian; jen-dea zenbateraino dagoen gustura jakiteko infor-mazioa biltzea eta zerbitzu publico sanitarioetan eta itunduetan izapidetu diren kexen eta erreklamazioen berri izatea.

- Asistentzia sanitarioagatik izandako diru-itzulketei buruzko expedienteak izapidetza eta hiru milioi arterainoko diru-kopurua eskatzen duten expedienteak eba-ztea. Prestazio ortoprote-sikoari dagozkion expedienteak ere izapidetza eta eba-ztea.

- Osasun sailburuordeari proposatzea zerbitzu sanitarioak erabiltzeko baimenak, indarrean dagoen kontzertazio-erregimenak zehazten duen kasuetarako.

- Aldez aurreko homologazioa egitea eta, kon-tratacio organoa denez, zerbitzu sanitarioak eskaintzeko itunak izapidetza, izenpetzea, gorabeherak eba-ztea, jarraipena egitea eta ebaluatzea osasun-zentro eta ospitale pribatuekin, bai eta bestelako erakunde eta antolakundeekin ere. Horrek ez du kaltetzen aldez aurretik baimena eskatu beharra dagokion kasuetan, eta sailean ezartzen diren norabideak eta irizpideak jarraitzea.

- Programa-kontratu-en itunak izapidetza, izenpetzea, gorabeherak eba-ztea, jarraipena egitea eta ebaluatzea Osakidetza-Servicio vasco de salud ente publikoaren zerbitzu sanitarioen anto-lakundeekin. Horretarako sailean ezartzen diren norabideak eta irizpideak jarraituko ditu.

4.- Lurralte-zuzendaritzei esleitutako zereg-nen zuzendaritza teknikorako eta administratibo-rako, horietako bakoitzaren menpe egongo dira zuzenean honako zuzendariordetza hauek:

- Osasun Publikoa.

b) Iniciar y tramitar los expedientes sanciona-dores en las materias de competencia del De-partamento, proponer a los Directores correspon-dientes de su organización central la adopción de medidas de carácter preventivo o cautelar, y ejer-cer la potestad sancionadora en los casos de imposición de sanciones de multa de hasta 250.000 PTA., elevando la propuesta de resolu-ción correspondiente en los expedientes que superen dicha cuantía.

c) Ejecutar las tareas operativas que requiera la cobertura de prestaciones sanitarias individuales que se aseguran públicamente a la población y, de acuerdo con ello:

- Tramitar y resolver las altas y bajas en el régimen de aseguramiento público sanitario vigente y realizar la gestión periférica que requiera la configuración del registro central de aseguramiento de la Comunidad Autónoma.

- Realizar los estudios que se requieran sobre cobertura, uso y acceso a los servicios sanitarios por los usuarios en el Área de Salud respectiva, así como recabar e integrar la información corres-pondiente sobre los niveles de satisfacción y las quejas y reclamaciones tramitadas en los servicios sanitarios públicos y concertados.

- Tramitar los expedientes de reintegro de gastos por asistencia sanitaria y resolver aquellos en los que la solicitud comprenda un importe de hasta tres millones de pesetas. Asimismo trami-tar y resolver los expedientes correspondientes a la prestación ortoprotésica.

- Proponer al Viceconsejero de Sanidad las Autorizaciones de Uso de servicios sanitarios en los supuestos que determine el régimen de con-certación vigente.

- Realizar la homologación previa y, como órgano de contratación, la tramitación, suscripción, resolución de incidencias, seguimiento y evaluación de los Conciertos para la prestación de servicios sanitarios con centros sanitarios y hospi-talarios privados, así como con otras entidades y organizaciones, todo ello sin perjuicio de recabar la autorización previa en los casos que correspon-da y del seguimiento de las directrices y criterios que se establezcan en el Departamento.

- Ejecutar la tramitación, suscripción, resolu-ción de incidencias, seguimiento y evaluación de los Contratos-Programa con las organizaciones de servicios sanitarios del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, siguiendo para ello las directrices y criterios que se establezcan en el Departamento.

4.- Para la dirección técnica y de carácter adminis-trativo de las tareas encomendadas a las Direcciones Territoriales, dependerán directa-mente de cada una de ellas las siguientes Subdi-recciones:

- Salud Pública.

- Aseguramendu eta Kontratazioa.
- Osasun Planerako lurralte-unitatea.

5.- Lurralte-zuzendarien plazak hutsik egonez gero, edo titularra kanpoan edo gaixorik egonez gero, bakoitzaren menpeko zuzendarior deek egin beharko dituzte ordezko lanak, atal honetan azaltzen den hurrenkeran; beti ere, legezko xedapen batek edo hierarkiako nagusiaren eba zpen batek besterik xedatzen edo eba zten ez badu».

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

##### *Lehenengoa.-*

Osasun Saileko Kontrataziorako Mahaiaren eraketa-araudia aurrerantzean ere dagokion aginduaren bidez arautuko da, ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak eza-rritakoaren arabera. Baino, hala ere, aldaketa batzuk egingo zaizkio, dekreto honek lurralte-ordezkarriari dagokionez ezartzen dituen aldaketak gauzatu ahal izateko beharrezko baita, hain zuzen ere Kontrataziorako Mahaia baita organo eskuduna itun sanitarioak izenpetzko. Hona Kontrataziorako Mahaia osaerari dago-kionez izango dituen aldaketak:

- a) Dagokion lurralte-zuzendaritzako Osasun Aseguramendu eta Kontrataziorako zuzendariordeari egokituko zaio lehendakaritza.
- b) Dagokion lurralte-zuzendariak izendatutako bi kide izango dira.
- c) Lurralte-zuzendariak izendatutako du idazkari lanak egingo dituen kidea, zuzendaritzako teknikarien artean. Idazkariak Zuzenbideko lizentziatura izan beharko du eta aholkularitza juridikoko lanak bete beharko ditu.

##### *Bigarrena.-*

Ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legearen 7. atalean xedatutakoaren arabera, osasun-barrutien mugaketa da osasun-plangintzarako lurralte-antolamenduaren oinarri nagusia.

Eragin horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru osasun-barrutien kokapen mugaketa bat dator lurralte historiko bakoitzaren mugaketarekin.

Osasun-barrutietako lurralte-antolamendua gainera-ko lurralte-antolamendu txikiagoetara zabalduko da pixkanaka-pixkanaka. Eremu bakoitzeko mugaketa geografikoak aldatzen ez diren bitartean indarrean jarraituko dute:

- Osasun eskualdeak, 1992ko martxoaren 24ko Aginduaren arabera (92.04.27ko EHAA).
- Botiken eskualdeen sailkapena, 1994ko irailaren 27ko Aginduaren arabera (94.10.13ko EHAA).
- Osasun publikoko eskualdeak, 1997ko urtarrilaren 8ko Aginduaren arabera (97.01.20ko EHAA).

- Aseguramiento y Contratación.
- Unidad Territorial para el Plan de Salud.

5.- La suplencia de los Directores Territoriales en los casos de vacante, ausencia o enfermedad del titular, salvo disposición legal o resolución del superior jerárquico en contrario, corresponderá a los Subdirectores dependientes del cada uno de ellos, según el orden con el que aparecen en el presente artículo.»

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

##### *Primera.-*

Sin perjuicio de que el régimen de composición de la Mesa de Contratación del Departamento de Sanidad siga regulándose en el futuro mediante la Orden correspondiente, conforme dispone el Decreto 136/1996, de 5 de junio, a efectos de la operatividad inmediata que requieren las modificaciones que realiza el presente Decreto en cuanto al Director Territorial, como órgano de contratación competente para suscribir los conciertos sanitarios, para tales supuestos la composición de la Mesa de Contratación observará las siguientes modificaciones:

- a) La Presidencia corresponderá al Subdirector de Aseguramiento y Contratación de la Dirección Territorial respectiva.
- b) Existirán dos Vocales designados por el Director Territorial correspondiente.
- c) El Vocal-Secretario será designado por el Director Territorial de entre los Técnicos de la Dirección, debiendo ostentar la Licenciatura en Derecho y correspondiéndole ejercer las funciones de Asesoramiento Jurídico.

##### *Segunda.-*

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, la delimitación de las Áreas de Salud constituye la base principal de ordenación territorial para la planificación sanitaria.

A dichos efectos, la delimitación geográfica de las tres Áreas de Salud que se encuentran establecidas en la Comunidad Autónoma se corresponderá con la delimitación correspondiente a cada uno de los Territorios Históricos de la misma.

Esta ordenación territorial de la Áreas de Salud se trasladará progresivamente al resto de ordenaciones territoriales inferiores, manteniéndose transitoriamente en vigor, en tanto no se modifiquen, las delimitaciones geográficas efectuadas en los siguientes ámbitos:

- Zonas de Salud, en Orden de 24 de marzo de 1992 (BOPV de 27.4.92).
- Zonas Farmacéuticas, en Orden de 27 de septiembre de 1994 (BOPV de 13.10.94).
- Comarcas de Salud Pública, en Orden de 8 de enero de 1997 (BOPV de 20.1.97).

## AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.-*

Osasun Sailean lanpostuen zerrendei egin beharreko aldaketak onartu artean, dekretu honen indarrez sortzen diren langile-atxikipenak iraungitako lurralde-ordezkaritzetik atxikitako baliabideen arabera egingo dira. Gauza bera egingo da Osasun Sailera transferitu beharreko baliabideekin, Osakidetza-Servicio vasco de salud organismo autonómoaren iraungipenaren ondorioz eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean aurreikusitako eredu funtzionalaren egokitasunaren ondorioz. Langileak atxiki aurretik negoziazio kolektiboko jardunbideak burutu beharko dira.

*Bigarrena.-*

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharanunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko azaroaren 11n.

Lehendakariordea,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## DISPOSICIONES FINALES

*Primera.-*

En tanto se aprueban las modificaciones pertinentes de la Relación de Puestos de Trabajo en el Departamento de Sanidad, las adscripciones del personal en las Direcciones Territoriales que se crean en virtud de este Decreto se realizarán, previos los procedimientos de negociación colectiva, de acuerdo con los recursos adscritos a las extintas Delegaciones Territoriales, así como con los recursos que sean objeto de transferencia al Departamento de Sanidad como consecuencia de la extinción del Organismo Autónomo Osakidetza-Servicio vasco de salud y de la adecuación de las estructuras organizativas al modelo funcional previsto en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi.

*Segunda.-*

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de noviembre de 1997.

El Vicepresidente,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## Agintariak eta Langileria

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

#### **OSASUN SAILA (Osakidetza)**

#### **Zk-5732**

2655/1997 ERABAKIA, urriaren 10eko, Osakidetza-ko zuzendari nagusiarena, Bizkaiko Osasun Barrutiko Portugalete-Enkarterri Eskualdeko administratzailearen lanpostua betetzeko José Antonio González Gutiérrez jauna izendatzen duena.

Bizkaiko Osasun Barrutiko Portugalete-Enkarterri Eskualdeko administratzailearen lanpostua betetzeko deialdia ikusi da. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen uztailaren 30eko 2219/1997 Erabakiaren bitarte egin zen eta EHAAko 164. zenbakian argitaratu zen, 1997ko abuztuaren 29koan alegia.

## Autoridades y Personal

### Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### **DEPARTAMENTO DE SANIDAD (Servicio vasco de salud)**

#### **Nº-5732**

RESOLUCIÓN 2655/1997, de 10 de octubre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra a D. José Antonio González Gutiérrez para desempeñar el puesto de Administrador de la Comarca Portugalete-Enkarterri, Área de Salud de Bizkaia.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Administrador de la Comarca Portugalete-Enkarterri de la Comarca Portugalete-Enkarterri, Área de Salud de Bizkaia, publicada en el BOPV n.º 164, de 29 de agosto de 1997, mediante Resolución n.º 2219/1997, de 30 de julio, de esta Dirección General.